1.- 2000ko aurrekontuan, 10 milioi pezetako aurrekontu-kontsignazioa dago Nafarroan merkataritza informatizatzeko planerako (PICNArako, alegia). Eginiko jarduketak, INTEC S.L. izeneko kanpoko aholkularitza-enpresa baten bidezkoak, honakoak izan dira: kontabilitate-kudeaketako ikastaroak; stock- edo biltegi-kudeaketa; WINDOWS ingurunea merkataritzari aplikatzea; Europezeta etiketak prestatzea; fakturak ordenagailu bidez prestatzea; merkataritzari informatika-auditoretzak egitea; merkataritzan diharduten enpresa txiki eta ertainei zuzenduriko merkataritza elektronikoko ikastaroak; PICNA 2000 disko konpaktua argitaratzea.

2.- 2001erako aurrekontuan 9.704.000 pezetako zenbatekoa daukan kontusail bat kontsignatu da, PICNAra zuzendua. Ekintzen helburua izanen da informatikaren esparruan ikastaroak eta aholkularitza sustatzea, WINDOWS inguruneko aplikazioen bitartez, merkataritzan diharduen enpresa txiki edo ertainak bere negozioa behar bezala kudeatu ahal izan dezan, hardware eta softwarea erosi aurretik (horiek erosteak eginiko inbertsioen %25erainoko dirulaguntza izanen du).

Iruñean, 2000ko abenduaren 11n

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

---

# “Transferentziak, taldeentzako zein norbanakoentzako merkataritza-ekipamenduetarako” izeneko aurrekontu-lerroaren kargura 2000n egin diren (edo egitekoak diren) jarduketei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak “Transferentziak, taldeentzako zein norbanakoentzako merkataritza-ekipamenduetarako” izeneko aurrekontu-lerroaren kargura 2000n egin diren (edo egitekoak diren) jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko abenduaren 7ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du “Transferentziak, taldeentzako zein norbanakoentzako merkataritza-ekipamenduetarako” izeneko aurrekontu-lerroaren kargukoak diren jarduketei buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen erantzuna:

1. 2000ko ekitaldia

“Transferentziak, taldeentzako zein norbanakoentzako merkataritza-ekipamenduetarako” kontusaileko aurrekontuaren kargura, honako dirulaguntza hauek eman zaizkie merkataritza-banaketaren sektoreko zenbait enpresari:

– Mailegu eta leasing eragiketetan, interes-puntuen gaineko hobariak, merkataritza-enpresa txikiek aktibo finkoetan eginiko inbertsioak finantzatzeko (lokalak, obra zibila, altzariak, ekipamendua, furgonetak, informatikako hardware eta softwarea, frankizia-kate eta erosketa-zentralei atxikitzearen ondoriozko kanonak...), Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariak emandako maiatzaren 18ko 69/2000 Foru Aginduan xedatuari jarraikiz.

– Itzuli beharrik gabeko zuzeneko dirulaguntzak, merkataritza-enpresa txikiak informatizatzeko, ekipo eta aplikazio informatikoetarako, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariak emandako maiatzaren 11ko 66/2000 Foru Aginduari jarraikiz.

2. 2001eko ekitaldia

2001eko ekitaldirako zenbateko bera, 120 milioi, xedatu da, eta horren erabilera antzekoa litzateke. Urte anitzeko izaerako espedienterik ez dagoenez gero (dirulaguntzak aldi berean esleitu eta ordaintzen dira), ez legoke aurreko urteetako aurrekontu hitzarturik.

Iruñean, 2000ko abenduaren 11n

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

# "Artisautza sustatzeko ekintzetarako gastuak" izeneko aurrekontu-lerroaren kargura 2000n egin diren (edo egitekoak diren) jarduketei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak "Artisautza sustatzeko ekintzetarako gastuak" izeneko aurrekontu-lerroaren kargura 2000n egin diren (edo egitekoak diren) jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko abenduaren 7ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du "Artisautza sustatzeko ekintzetarako gastuak" izeneko aurrekontu-lerroaren kargukoak diren jarduketei buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen erantzuna:

1. 2000ko ekitaldia

"Artisautza sustatzeko ekintzetarako gastuak" izeneko kontusaileko aurrekontuaren kargura honako hauek ordaindu dira: mikroenpresen sektore honi buruzko azterketa sozioekonomikoak egitea, katalogoak prestatzea, zenbait gairi buruzko jardunaldiak antolatzea (tailerrak kudeatzeko AGATA aplikazio informatikoa, produktua diseinatu eta merkaturatzea...)

2. 2001eko ekitaldia

2001ean egin nahi diren ekintzak antzekoak dira. Aurreikusitako aurrekontua 5 milioikoa da, eta horretan ez dago aurreko ekitaldietan hitzarturiko gasturik.

Iruñean, 2000ko abenduaren 11n

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

---

# "Nafarroako artisautza sustatzeko ekintzak" izeneko aurrekontu-lerroaren kargura 2000n egin diren (edo egitekoak diren) jarduketei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak "Nafarroako artisautza sustatzeko ekintzak" izeneko aurrekontu-lerroaren kargura 2000n egin diren (edo egitekoak diren) jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko abenduaren 7ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du "Nafarroako artisautza sustatzeko ekintzak" izeneko aurrekontu-lerroaren kargukoak diren jarduketei buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen erantzuna:

1. 2000ko ekitaldia

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren 1998ko ekainaren 17ko Foru Agin-

duak artisautza-enpresetarako adierazten dituen itzuli beharrik gabeko diru-laguntzetarako (azoketara joatea, katalogoak eta sustapen-materiala argitaratzea) erabili da "Nafarroako artisautza sustatzeko ekintzak" izeneko kontusaileko aurrekontua.

2. 2001eko ekitaldia

2001erako aurreikusitako aurrekontua 8,5 milioi pezetakoa da, eta ekintza beretarako erabiliko da. Aurreko urteetako gastu hitzarturik ez dauka.

Iruñean, 2000ko abenduaren 11n

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

---

## "Artisauak profesionalizatzea" izeneko aurrekontu-lerroaren kargura 2000n egin diren (edo egitekoak diren) jarduketei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak "Artisauak profesionalizatzea" izeneko aurrekontu-lerroaren kargura 2000n egin diren (edo egitekoak diren) jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko abenduaren 7ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du "Artisauak profesionalizatzea" izeneko aurrekontu-lerroaren kargukoak diren jarduketei buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen erantzuna:

1. 2000ko ekitaldia

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren 1998ko ekainaren 17ko Foru Agintduak artisautza-enpresetarako adierazten dituen itzuli beharrik gabeko diru-laguntzetarako (lanbide-hobekuntzako arloaren eta enpresa-arloaren prestakuntza-jardueretara joatea) erabili da "Artisauak profesionalizatzea" izeneko kontusaileko aurrekontua.

2. 2001eko ekitaldia

2001erako aurreikusitako aurrekontuak (milioi bat pezeta), zeina ekintza beretara bideratuko baita, ez dauka aurreko urteetako gastu hitzarturik.

Iruñean, 2000ko abenduaren 11n

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

---

# “Kontsumo Atalaren diru laguntzak eskola-proiektuetarako” izeneko aurrekontu-lerroaren kargura 2000n egin diren (edo egitekoak diren) jarduketei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak “Kontsumo Atalaren diru laguntzak eskola-proiektuetarako” izeneko aurrekontu-lerroaren kargura 2000n egin diren (edo egitekoak diren) jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko abenduaren 7ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du “Kontsumo Atalaren diru laguntzak eskola-proiektuetarako” izeneko aurrekontu-lerroaren kargukoak diren jarduketei buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen erantzuna:

1.- Diru-laguntzetarako kontusaila denez, lehiaketa publiko bidez (apirilean) kudeatzen da eta, bere edukiarengatik, ikasturte bat hartzen du; hori dela-eta, bi aurrekontualdi ukitzen ditu.

Kontusail horren kargura (hasierako zuzkidura 3.000.000 pezetakoa zen, eta bukaerakoa 4.200.000 pezetakoa) honako jarduketa hauek egin dira:

– 1999/2000 IKASTURTERAKO DEIALDIA:

• 33 eskola-proiektu

• 13 ikastetxetan.

• 2.940.539 pezeta ordaindu dira (1.764.323, 1999koaren kargura, eta 1.176.216, 2000koaren kargura).

– 2000/2001 IKASTURTERAKO DEIALDIA:

• 50 eskola-proiektu.

• 20 ikastetxetan.

• 5.049.551 pezeta hitzarturik (3.029.731, 2000koaren kargura ordainduta, eta 2.019.820, 2001ekoaren kargura hitzartuta).

2.- Aurrekontuko kopurua 4.030.000 pezetakoa da, eta 2000/2001 ikasturteko proiektuen bigarren epeari aurre egiteko hitzarturiko kantitatea 2.019.820 pezetakoa da (zuzkiduraren %50).

Aurreikusitako jarduketak dira 2001eko apirilean argitaratuko den deialdira aurkeztuko diren eskola-proiektuak finantzatzea. Joan den urtean %51ko gehikuntza izan ondoren, aurreikustekoa da eskabideek neurri apalean gora egitea.

Ustekabeko edozein gorakadari aurre eginen litzaioke lehen epean kontusailaren mugara iristeraino ordainduz, eta gainerakoa 2002koaren kargura edo izan litezkeen soberakinak atalean diru-laguntzetarakoak diren beste kontusailetatik transferentzia bidez eskuratuz.

Iruñean, 2000ko abenduaren 11n

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

# "Azoketan parte hartzea" izeneko aurrekontu-lerroaren kargura 2000n egin diren (edo egitekoak diren) jarduketei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak "Azoketan parte hartzea" izeneko aurrekontu-lerroaren kargura 2000n egin diren (edo egitekoak diren) jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko abenduaren 7ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du "Azoketan parte hartzea" izeneko aurrekontu-lerroaren kargura 2000n eta 2001ean egin diren (edo egitekoak diren) jarduketei buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen erantzuna:

1. 2000KO AZOKAK

ATZERRIKO AZOKAK, TURESPAÑAREN ERAKUSTOKIAN

DONEJAKUE BIDEA MARKA

– Berlineko ITB

– Veronako Itinera

– Koloniako Reisemarkt

– Pariseko Mitcar

– Brusselako Salon des Vacances

– Milaneko BIT

– Londoneko WTM

– Utrechteko Vakantiebeurs

PIRINIOAK MARKA

– Berlineko ITB

– Londoneko WTM

– Pariseko Salon Mondiale du tourisme

– Bordeleko Salon du Tourisme

– Tolosako Salon du Tourisme

– Municheko CBR, Caravan, Boot und Reisen

– Stuttgarteko CMT, Caravan, Motor und Touristik

– Esseneko Reise International Camping

– Düsseldorfeko Caravan Salon

– Anbereseko Vakantiesalon

– Brusselako Salon des Vacances

– Utrechteko Vakantiebeurs

ESPAINIAKO AZOKAK

– FITUR, Madrilen (diseinu-erakustokia)

– SITC, Bartzelonan (diseinu-erakustokia)

– EXPOVACACIONES, Bilbon (diseinu-erakustokia)

– EXPOOCIO, Madrilen

– INTUR, Valladoliden (diseinu-erakustokia)

– FERIA DE MUESTRAS, Iruñean (diseinu-erakustokia)

– ECONAVARRA, Iruñean

– FIROLOT, Oloten (Girona)

– SALÓN DE HOSTELERÍA, Iruñean

– EXPO HANNOVER , Hannoverren (Alemania)

– EXPO TUDELA, Tuteran

– ALIMENTARIA (Nasersarekin lankidetzan), Bartzelonan

– SALÓN VIRTUAL DEL TURISMO ESPAÑOL (banner bat txertatzea)

Espainiatik kanpoko azoketara Pirinioak eta Donejakue Bidea markekin baizik ez da joaten Nafarroa.

Pirinioetako azoketan "Pirineos-España, el lado del sol" markapean parte hartu ohi da, Turespañaren erakustokiko erakusmahai batean, Aragoi eta Kataluniarekin batera. Pirinioetako erakusmahaiaz arduratzea egokitu zaio Nafarroari honako azoka hauetan:

– Municheko CBR, Caravan, Boot und Reisen.

– Stuttgarteko CMT, Caravan, Motor und Touristik eta

– Esseneko Reise International Camping

Gainerako azoketara, Nafarroak iragarpen-materiala bidali du, bertan banatzeko.

Berlineko ITB azokan, Londoneko WTMn eta Pariseko Salon Mondiale du Tourismen (atzerriko azokarik garantzitsuentzat jotzen dira) Nafarroak era-

kusmahai berekia dauka Turespañaren erakustokiaren barnean; betiere, Pirinioak markapean.

Donejakue Bidea markarekin Pirinioak markarekin gertatzen den gauza bera gertatzen da. Nafarroak horietara guztietara Donejakue Bideari buruzko iragarpen-materiala bidali du, eta erakusmahaiaz arduratzea egokitu zaio honako azoka hauetan:

– Parisko Mitcar eta

– Utrechteko Vakantiebeurs

2000 urterako “Azoketan parte hartzea” lerroan hasierako aurrekontua 65.000.000 pezetakoa zen, eta kopuru horretatik 56.689.969 pezeta hitzartu dira.

2. 2001EKO AZOKAK

ATZERRIKO AZOKAK

Pirinioak eta Donejakue Bidea akordioaren ondorioz parte hartuko deneko azokak 2000ko berak dira ia. Donejakue Bidea markarekin aurten Nafarroa ez da Veronan izanen, azoka hori bi urtez behin egiten baita.

– STEPS, Londonen, ekainaren 6 eta 7an.

STEPS (Spanish Tourism Exchange for Professionals) azoka, haren lehen edizioan, osoki Espainiari buruzko turismo-azoka bat da, sektoreko profesionalei zuzendua, eta, bertan, erkidego bakoitzak turismorako dituen erakargarriak eta interesgarri jotzen duen guztia erakutsiko du.

ESPAINIAKO AZOKAK

– FITUR, Madrilen (diseinu-erakustokia)

– SITC, Bartzelonan (diseinu-erakustokia)

– EXPOOCIO, Madrilen

– EXPOVACACIONES, Bilbon

– INTUR, Valladoliden (diseinu-erakustokia)

– FERIA GOURMET, Madrilen

– FERIA DE MUESTRAS, Iruñean

– SALÓN DE HOSTELERÍA, Iruñean

FITUR 2001 azokarako 20.000.000 pezetako gastua baimendu da, erakustokia eraikitzeko, eta SITC, EXPOVACACIONES eta INTUR azoketarako 15.000.000 pezetako gastua baimendu da, Nafarroaren erakustokia diseinatu, muntatu eta desmuntatzeko.

FERIA GOURMET azokan ICANekin lankidetzan parte hartuko da.

DONEJAKUE BIDEA

– Berlineko ITB

– Koloniako Reisemarkt

– Pariseko Salon Mondial

– Pariseko Mitcar

– Brusselako Salon des Vacances

– Milaneko BIT

– Londoneko WTM

– Utrechteko Vakantiebeurs

Iruñean, 2000ko abenduaren 11n

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

---

## Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuan inbertsioak finantzatzearren turismoaren arloko enpresa txiki eta ertainek urtero aurkezten dituzten laguntza eskaeren kopuruari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuan inbertsioak finantzatzearren turismoaren arloko enpresa txiki eta ertainek urtero aurkezten dituzten laguntza eskaeren kopuruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko abenduaren 7ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du inbertsioak finantzatzearren turismoaren arloko enpresa txiki eta ertainek urtero aurkezten dituzten laguntza eskaeren kopuruari buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen erantzuna:

1)

| Establezimendua | Eskaera kopurua | Eskaera kopurua | Onarturiko inbertsioa | Dirulaguntza |
|---|---|---|---|---|
| HOTELAK | 92 | 10.441 milioi pezeta | 9.077 milioi pezeta | 138,1 milioi pezeta |
| JATETXEAK | 105 | 4.734 milioi pezeta | 4.329 milioi pezeta | 90 milioi pezeta |
| JARDUERA TURISTIKOETAKO ENPRESAK | 23 | 349 milioi pezeta | 141 milioi pezeta | 20 milioi pezeta |
| GUZTIRA | 220 | 15.524 milioi pezeta | 13.547 milioi pezeta | 248,1 milioi pezeta |

2)

| Establezimendua | Eskaeren % | Inbertsioaren % |
|---|---|---|
| HOTELAK | % 75 | % 86,94 |
| JATETXEAK | % 84,7 | % 91,4 |
| JARDUERA TURISTIKOETAKO ENPRESAK | % 70 | % 40 |
| GUZTIRA | % 80 | % 87,26 |

3) Eskaturiko inbertsioaren %1,60 inguru

4) 1.600 milioi pezeta inguru.

5) Eskaerak aurkezteko epearen amaiera-egunetik inbertsioaren frogagirien jasotze-egunera arte 3 hilabete pasatzen dira, gutxi gorabehera.

Dokumentazio guztia jaso ondoren, ebazteko epea 15 egun ingurukoa da.

Laguntza ebazten den egunetik ordainketa berehalakoa da, eta atzerapena diruzaintzak diru sarrera kontabilizatu eta egiteko behar duena da; alegia, beste 15 egun.

Guztira, 4 hilabete inguru.

Iruñean, 2000ko abenduaren 11n

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

---

## Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak azken lau urteotan turismoa sustatzeko elkarteei emandako laguntzaren bilakaerari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak azken lau urteotan turismoa sustatzeko elkarteei emandako laguntzaren bilakaerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko abenduaren 7ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak azken lau urteotan turismoa sustatzeko elkarteei emandako laguntzaren bilakaerari buruz (bilakaera horren berri urtez urte eta entitatez entitate xehekaturik eman dadila eskatu du). Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen erantzuna:

Iruñean, 2000ko abenduaren 11n

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

| | 1997 | | 1998 | | 1999 | | 2000 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Elkarteak | Aurrekontua | Diru laguntza | Aurrekontua | Diru laguntza | Aurrekontua | Diru laguntza | Aurrekontua | Diru laguntza |
| Alimentos Artesanos elkartea | | | 6.250.000 | 4.375.000 | 5.862.069 | 4.103.448 | 7.180.000 | 4.988.443 |
| Camping elkartea | 3.242.800 | 2.269.960 | 11.226.519 | 7.000.000 | 14.900.000 | 9.500.000 | 1.110.000 | 6.907.991 |
| Iruak Bat elkartea | | | 5.200.000 | 3.640.000 | 1.994.000 | 1.395.800 | 4.197.000 | 1.714.889 |
| Ciudadanos ciclistas elkartea | | | 642.500 | 449.750 | | | | |
| Comerciantes de Bertiz elkartea | | | 2.690.000 | 1.883.000 | | | | |
| El Paso kultur elkartea | | | 429.000 | 300.300 | 1.215.000 | 850.500 | | |
| Gazteluleku elkartea | | | 1.301.000 | 910.700 | | | | |
| Hostelería de Estella elkartea | | | 12.373.158 | 8.661.211 | 9.676.732 | 6.773.712 | 6.986.480 | 2.773.709 |
| Hoteles de Bertiz elkartea | | | 2.350.000 | 1.645.000 | | | | |
| Hoteles de Pamplona elkartea | | | 9.000.000 | 6.300.000 | 9.400.000 | 6.580.000 | 3.150.000 | 1.846.101 |
| Hoteles Rurales elkartea | 10.175.000 | 7.000.000 | 10.271.800 | 7.000.000 | 9.999.200 | 6.999.440 | 12.409.000 | 7.431.252 |
| Restaurantes de Bertiz elkartea | | | 1.210.000 | 847.000 | | | | |
| AEHN | 23.981.000 | 7.000.000 | 24.476.000 | 7.000.000 | 30.514.000 | 9.500.000 | 20.312.491 | 11.935.139 |
| AETUR | | | | | 9.420.000 | 4.935.000 | 6.450.000 | 3.037.134 |
| Amigos de Artajona | | | | | | | 74.500 | 63.522 |
| ANAPEH | | | | | | | 5.666.535 | 926.780 |
| Aralar-Mendi | 3.667.000 | 1.457.000 | 2.117.000 | 1.481.900 | 1.580.000 | 1.106.000 | 3.585.714 | 2.491.244 |
| Artesanos Plazaola | | | | | 692.820 | 484.974 | | |
| Aizpea emakume elkartea | | | | | 1.375.000 | 325.500 | | |
| IOAR turismo elkartea | 3.340.000 | 2.338.000 | 6.825.000 | 4.777.500 | 6.420.000 | 1.617.000 | 4.162.000 | 0 |
| Almadieros elkartea | | | | | 8.941.351 | 1.436.575 | 2.360.673 | 1.640.723 |
| Cocineros elkartea | | | | | 863.000 | 604.100 | | |
| Restaurantes elkartea | | | | | | | 5.833.500 | 4.052.936 |
| El Claustro elkartea | 2.357.800 | 1.650.460 | 15.046.761 | 10.532.733 | | | 12.163.200 | 4.582.142 |
| El Riguete elkartea | 300.000 | 210.000 | | | | | | |
| Baztango Dantzariak | | | | | | | 6.196.019 | 794.022 |
| Bideak | 1.165.600 | 815.920 | 6.390.000 | 4.473.000 | | | 10.000.000 | 6.947.692 |
| C.R. Pirineo | | | | | | | 928.000 | 644.746 |
| C.R. Aralar | | | | | | | 464.000 | 322.373 |
| C.R. Roncal-Salazar | | | | | 215.000 | 150.500 | | |
| Club Ciclista Arguedano | | | | | 1.400.000 | 980.000 | | |
| Cofradía Hongos y Setas | | | 2.050.000 | 1.435.000 | 5.755.000 | 4.028.500 | 6.650.000 | 4.620.215 |
| Cofradía del Vino | | | | | 3.615.000 | 759.500 | 3.267.420 | 500.234 |
| Cofradía N. Sra. de Codés | | | 342.200 | 239.540 | | | | |
| Colectivo Artesanos T.E. | 375.000 | 262.500 | | | | | | |
| Empr. Tur. Zona Media | | | | | 4.256.962 | 1.119.273 | 346.128 | 240.479 |
| Ermitaños Arnotegui | | | 2.157.778 | 1.510.445 | 23.274.080 | 5.000.000 | 11.480.000 | 6.947.692 |
| Landetxeen Feder | 5.788.600 | 4.052.020 | | | | | | |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Gestores del Patrimonio | | | | | | | 580.000 | 402.966 |
| Hermand. Pasión Corella | | | 852.900 | 597.030 | 355.000 | 248.500 | 191.000 | 0 |
| Orden de Gastronomía | | | | | 7.750.000 | 2.870.000 | | |
| Orden del Volatín | | | 1.500.000 | 1.050.000 | 7.045.800 | 4.932.060 | 8.762.000 | 3.478.610 |
| Xaretarrak | | | | | 6.810.000 | 4.767.000 | | |
| Guztira | 54.392.800 | 27.055.860 | 124.701.616 | 76.109.109 | 173.330.014 | 81.067.382 | 144.505.660 | 79.291.034 |

## Bertizko Turismo Partzuergoari sortu zenetik hona emandako laguntzaren bilakaerari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak Bertizko Turismo Partzuergoari sortu zenetik hona emandako laguntzaren bilakaerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko abenduaren 7ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du, Bertizko Turismo Partzuergoari Turismo Departamentuak emandako laguntzaren bilakaerari buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen erantzuna:

| URTEA | GASTUA | INBERTSIOA | GUZTIRA |
|---|---|---|---|
| 1993 | | | 10.000.000 |
| 1994 | | | 10.000.000 |
| 1995 | 7.320.000 | 7.000.000 | 14.320.000 |
| 1996 | 8.716.639 | 862.069 | 9.578.708 |
| 1997 | | | 12.000.000 |
| 1998 | 12.000.000 | 0 | 12.000.000 |
| 1999 | 11.968.987 | 31.013 | 12.000.000 |
| 2000 | 7.309.113 | 4.915.887 | 12.225.000 |

Iruñean, 2000ko abenduaren 11n

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

## “Laneko arriskuei aurrea hartzeko programa” izeneko aurrekontu-lerroaren kargura 2000n egin diren (edo egitekoak diren) jarduketei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak “Laneko arriskuei aurrea hartzeko programa” izeneko aurrekontu-lerroaren kargura 2000n egin diren (edo egitekoak diren) jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko abenduaren 7ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du, Lan Harremanen Ataleko "Laneko arriskuei aurrea hartzeko programa" izeneko aurrekontu-lerroaren kargura 2000n egin diren (edo egitekoak diren) jarduketei eta 2001erako aurreikusitakoei buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen erantzuna:

1. 2000n zehar "Laneko arriskuei aurrea hartzeko programa" izeneko aurrekontu-lerroaren kargura egin diren jarduketak 1999ko abenduaren 30eko Foru Aginduan ezarritakoak dira. Foru Agindu hori Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren ekainaren 22ko Foru Aginduaren osagarria da, eta lan arriskuei aurrea hartzeko kultura sustatu, haien ebaluazioa ezarri eta aurrea hartzeko lana antolatzeko berariazko ekintzetarako dirulaguntzak emateko araubidea arautzen du.

Arau horietan eskaerak aurkezteko epeak ezarri ziren eta epe horietan 9 eskaera aurkeztu ziren. Horietatik, 8ri baiezko erantzuna eman zitzaien, eta emandako diru laguntzek lerroaren guztizko zenbatekoa hartu zuten. Diru laguntza emateko unean %70 ordaindu zen, eta gainerako %30 ordaintzeke geratu zen, proiektua egin izana frogatzearen zain. Proiektu hori, edonola ere, abenduaren 31 baino lehenago egin behar da.

2.- Kontusaila urte anitzekoa ez denez gero, 2001erako ez da hitzartu ezein kopuru.

Iruñean, 2000ko abenduaren 12an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

---

## "Laneko arriskuei aurrea hartzeko inbertsioak" izeneko aurrekontu-lerroaren kargura 2000n egin diren (edo egitekoak diren) jarduketei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak "Laneko arriskuei aurrea hartzeko inbertsioak" izeneko aurrekontu-lerroaren kargura 2000n egin diren (edo egitekoak diren) jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko abenduaren 7ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du, Lan Harremanen Ataleko "Laneko arriskuei aurrea hartzeko inbertsioak" izeneko aurrekontu-lerroaren kargura 2000n egin diren (edo egitekoak diren) jarduketei eta 2001erako aurreikusitakoei buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen erantzuna:

1. 2000n zehar "Laneko arriskuei aurrea hartzeko inbertsioak" lerroaren kargura egin diren jarduketak Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren 1999ko abenduaren 30eko Foru Aginduan ezarrita daude. Foru Agindu horrek arautzen du industri, eraikuntza eta erauzketa arloko enpresa txiki eta ertainei laneko ekipoen egokitzapenetarako edo babes kolektiborako baliabide teknikoetarako 2000. urtean inbertsioak egiteko laguntzak emateko erregimena.

Arau horrek ezartzen du eskaerak aurkezteko epea azaroaren 15a baino lehenago izanen dela. Azaroaren 10ean 28 eskaera zeuden aurkeztuta, eta horietatik 22ri eman zitzaien baiezko erantzuna (horren zenbatekoa 38.293.830 pezetakoa izan zen), eta 6ri ezezkoa.

Azaroaren 10etik 15era arte 45 eskaera aurkeztu dira, eta horiek ebazteko prozesua abian

da. Eskatu den gehieneko kopuru diruz lagundu ahal izateko modukoa 50.495.160 pezetakoa da.

2. Kontusaila urte anitzekoa ez denez gero, 2001erako ez dago ezein kopuru hitzartuta.

Iruñean, 2000ko abenduaren 12an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

---

## “Ekonomia sozialeko entitateak sustatu eta mantentzea” izeneko aurrekontu-lerroaren kargura 2000n egin diren (edo egitekoak diren) jarduketei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak “Ekonomia sozialeko entitateak sustatu eta mantentzea” izeneko aurrekontu-lerroaren kargura 2000n egin diren (edo egitekoak diren) jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko abenduaren 7ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du, Ekonomia Sozialaren Ataleko “Ekonomia sozialeko entitateak sustatu eta mantentzea” izeneko aurrekontu-lerroaren kargura 2000n egin diren (edo egitekoak diren) jarduketei eta 2001erako aurreikusitakoei buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen erantzuna:

1. “Ekonomia sozialeko entitateak sustatu eta mantentzea” izeneko lerroaren kargura 2000n egin diren jarduketak honako hauek izan dira:

1998ko apirilaren 15ean, Nafarroako Gobernuak eta Asociación Navarra de Empresas Laborales (ANEL) delakoak lankidetza-hitzarmen bat sinatu zuten, 1986ko otsailaren 21eko ministerio-aginduaren babesean (agindu hori geroago aldatu zuten 1998ko abenduaren 29ko eta 1999ko azaroaren 24ko ministerio-aginduek), zeinak ezartzen baitu kooperatiben eta/edo lan-sozietateen elkarteek dagozkien helburuak betetzeko egiten dituzten mantentze- eta azpiegitura-gastuak finantzatu ahal direla. Lankidetza-hitzarmen horretako hirugarren klausulan ezartzen denez, Nafarroako Gobernuak eginkizun horretarako laguntza emanten segituko du, eta, beraz, ANELi dagozkion helburuak betetzeko mantentze- eta azpiegitura-gastuak ordainduko dizkio, ekitaldi bakoitzean egokitzat jotzen diren kopuruetakoak izanen diren aurrekontu-aurreikuspenetako mugen barnean.

2000rako aurrekontu legeak 35 milioi pezetako kontusaila jasotzen zuen helburu horretarako, eta, apirilaren 26ko 325/2000 ebazpenaren bitartez, Lan zuzendari nagusiak 35 milioiko kopuru hori esleitu zion ANELi, lehenago aipaturiko hitzarmenean oinarrituz, eta kopuru hori lau ordainalditan, bakoitza hiru hilean behin, helarazten ari da, aurreko hiruhilekoetako balantze ekonomikoa aurkeztu ondoren.

2.- Kontusaila urte anitzekoa ez denez gero, 2001erako ez da hitzartu ezein kopuru.

Iruñean, 2000ko abenduaren 12an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

---

# “Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta entitate publikoen arteko itunak, enplegu-programa berariazkoetarako” izeneko aurrekontu-lerroaren kargura 2000n egin diren (edo egitekoak diren) jarduketei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak “Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta entitate publikoen arteko itunak, enplegu-programa berariazkoetarako” izeneko aurrekontu-lerroaren kargura 2000n egin diren (edo egitekoak diren) jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko abenduaren 7ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta entitate publikoen artean enplegu-programa berariazkoetarako sinaturiko itunei buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen erantzuna:

1. Lankidetza-hitzarmenak honako entitate hauekin sinatu dira:

• Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra delakoarekin, “I+G unibertsitate-ekintzaileak” eta “CEIN enpresa-erkidegoa” ekintzak egiteko.

• Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialarekin, enplegu-sustapen eta garapen ekonomikorako honako proiektu hauek egiteko: “etorkinen enplegua sustatzea”, “egurraren eta altzariaren sektorerako prestakuntza bikoitzerako proiektu esperimentala”, “langile autonomoei eta enpresa txikietako zuzendariei zuzenduriko prestakuntza-ekintzak” eta “Sustapen eta Garapen Atalaren kofinantzaketa”.

• Enplegua-Unibertsitatea Fundazioa, titulodunen laneratzera bideraturiko honako ekintza hauek burutzeko: “laneko sustapena eta bitartekaritza”, “autoenplegua eta unibertsitate-ikasleengan izpiritu ekintzailea garatzea” eta “2000ko Enplegu Astea antolatzea”.

• Nafarroako Unibertsitate Publikoko Unibertsitate-Gizarte Fundazioa, bertako ikasle eta graduondokoen laneratzera bideraturiko honako proiektu hauek egiteko: “Unibertsitate-ikasleentzako lehen enplegu-jardunaldia antolatzea” eta “profesionalen eskaintza eta eskaria elkarri egokitzeko programa, Nafarroako enpresekin lankidetzan, graduondoko titulua daukaten emakumeei zuzendua”.

2. Momentuz, aurtengorako hitzartua jadanik aurrekontuko kopuru guztizkoa da, eta aurreko galderan adierazitako gaur egungo hitzarmenen indarraldia 2000rako baizik ez da. Beraz, 2001erako hitzarmen berriak sinatzea erabaki beharko da, eta haietan ezarri beharko dira diruz lagundu daitezkeen jarduketak.

Iruñean, 2000ko abenduaren 11n

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

## “Tituludunak praktiketan kontratatzeko transferentziak” aurrekontu-lerroan Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentua 2000n zehar hitzartuko duen zenbatekoari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak “Tituludunak praktiketan kontratatzeko transferentziak” aurrekontu-lerroan Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentua 2000n zehar hitzartuko duen zenbatekoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko abenduaren 7ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du tituludunak praktiketan kontratatzeko transferentziei buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen erantzuna:

1. Lerro horretan 2000rako hitzarturiko zenbatekoa 18.877.083 pezeta da.

2. Baiezkoa emanen zaie aurkeztu diren eskaera guztiei.

Iruñean, 2000ko abenduaren 11n

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

---

## “Transferentziak kooperatibei zein lan sozietateei, lanpostuak sortzearren” aurrekontu-lerroan Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentua 2000n zehar hitzartuko duen zenbatekoari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak “Transferentziak kooperatibei zein lan sozietateei, lanpostuak sortzearren” aurrekontu-lerroan Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentua 2000n zehar hitzartuko duen zenbatekoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko abenduaren 7ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du lanpostuak sortzearren kooperatibei zein lan sozietateei eginiko transferentziei buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen erantzuna:

1. Hitzartzeko aurreikusi den zenbatekoa 195.600.000 pezetakoa da.

2. Aurrekontualdia itxi aurretik baiezkoa emanen zaie aurkezturiko eskaera guztiei, baldin eta dokumentazio guztia erantsirik badute.

Iruñean, 2000ko abenduaren 11n

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

# “Transeferentziak kooperatibei zein lan sozietateei, enplegua bultzatzearren” aurrekontu-lerroan Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentua 2000n zehar hitzartuko duen zenbatekoari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak “Transeferentziak kooperatibei zein lan sozietateei, enplegua bultzatzearren” aurrekontu-lerroan Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentua 2000n zehar hitzartuko duen zenbatekoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko abenduaren 7ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du enplegua bultzatzearren kooperatibei zein lan sozietateei eginiko transferentziei buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen erantzuna:

1. Hitzartzeko aurreikusi den zenbatekoa 27.009.000 pezetakoa da.

2. Aurrekontualdia itxi aurretik baiezkoa emanen zaie aurkezturiko eskaera guztiei, baldin eta dokumentazio guztia erantsirik badute.

Iruñean, 2000ko abenduaren 11n

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

---

# “Dirulaguntzak enplegua sortzeko, langabeziaren kapitalizazioa dela eta” 2000n zehar hitzartuko duen zenbatekoari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak “Dirulaguntzak enplegua sortzeko, langabeziaren kapitalizazioa dela eta” 2000n zehar hitzartuko duen zenbatekoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko abenduaren 7ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du langabeziaren kapitalizazioa dela-eta enplegua sortzeko diru laguntzei buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen erantzuna:

1. Hitzartzeko aurreikusi den zenbatekoa 66.000.000 pezetakoa da.

2. Aurrekontualdia itxi aurretik baiezkoa emanen zaie aurkezturiko eskaera guztiei.

Iruñean, 2000ko abenduaren 11n

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

# “Enplegu-gune berriak garatzea” aurrekontu-lerroan 2000n zehar hitzartuko duen zenbatekoari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak “Enplegu-gune berriak garatzea” aurrekontu-lerroan 2000n zehar hitzartuko duen zenbatekoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko abenduaren 7ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du enplegu-gune berriak garatzeari buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen erantzuna:

1. Hitzartzeko aurreikusi den zenbatekoa 117.500.000 pezetakoa da.

2. Aurrekontualdia itxi aurretik baiezkoa emanen zaie aurkezturiko eskaera guztiei.

Iruñean, 2000ko abenduaren 11n

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

---

# Etorkinak gizarteratzeko egin diren prestakuntza-ekintzei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak Etorkinak gizarteratzeko egin diren prestakuntza-ekintzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko abenduaren 7ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du etorkinak gizarteratzeko egin diren prestakuntza-ekintzei buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen erantzuna:

1. Kontusailak prestakuntza- eta gizarteratze-neurriak aurreikusten ditu. 44 gizarteratze-ekintza egin dira, eta 4 entitateren eskutik.

2. Ekintza bakoitzeko batez besteko kostua 818.000 pezetakoa izan da.

Iruñean, 2000ko abenduaren 11n

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

---

# Enplegua lortzen zailtasun gehien duten taldeak laneratzeko programetan 2000n zehar hitzartuko den gastuari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak Enplegua lortzen zailtasun gehien duten taldeak laneratzeko programetan 2000n zehar hitzartuko den gastuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko abenduaren 7ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du enplegua lortzen zailtasun gehien duten taldeak laneratzeko programetan aurten hitzartuko den gastuari buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen erantzuna:

1. Hitzartzeko aurreikusten den zenbatekoa 16 milioikoa da, eragiketa arruntetarako, eta 55 milioikoa, kapital-eragiketetarako.

2. Zentzunezkoa da 2000ko gastu arrunta hitzartzea. Gastu hori 70 milioi ingurukoa izan ahalko da.

Laneratze zentroek 2001erako daukaten inbertsio-planaren berri ez dugu.

Iruñean, 2000ko abenduaren 11n

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

# Toki-garapena sustatzearren Inem-ek transferitutako programetan 2000n zehar hitzartuko den gastuari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak Toki-garapena sustatzearren Inem-ek transferitutako programetan 2000n zehar hitzartuko den gastuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko abenduaren 7ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du toki-garapena sustatzearren Inem-ek transferitutako programetan aurten hitzartuko den gastuari buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen erantzuna:

1.- Hitzarturiko zenbatekoa 115.500.000 pezetakoa da (enplegu tailerrak barne hartu gabe).

2. Zentzunez jokatuz, 2001erako hitzartu beharreko zenbatekoa, legezko luzapenaz, 60 milioikoa da.

Iruñean, 2000ko abenduaren 11n

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

# “Diru laguntzak administrazio publikoentzat eta irabazi asmorik gabeko entitateentzat, kontratazioetarako” aurrekontu-lerroaren kargura 2000n zehar egindako jarduketei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak “Diru laguntzak administrazio publikoentzat eta irabazi asmorik gabeko entitateentzat, kontratazioetarako” aurrekontu-lerroaren kargura 2000n zehar egindako jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko abenduaren 7ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du “diru laguntzak administrazio publikoentzat eta irabazi asmorik gabeko entitateentzat, kontratazioetarako” kontusailaren kargura 2000n zehar egindako jarduketei buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen erantzuna:

1. Indarreko araudiari jarraituz, jarduketak izan dira administrazio publikoek edo irabazi asmorik gabeko entitateek pertsona langabetuak kontratatzea. Guztira, 109 kontratazio izan dira.

2. Aplikatzekoa den araudiari jarraituz, soldatakostuaren eta gizarte segurantzakoaren %100erako diru laguntza ematen da, aplikatzekoak diren moduluen arabera.

3. Eskaera guztiei eman zaie baiezkoa.

Iruñean, 2000ko abenduaren 11n

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

---

# “Transferentziak kooperatibei eta lan sozietateei, enplegua bultzatzearren” aurrekontu-lerroaren kargura 2000n zehar egindako jarduketei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak “Transferentziak kooperatibei eta lan sozietateei, enplegua bultzatzearren” aurrekontu-lerroaren kargura 2000n zehar egindako jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko abenduaren 7ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du “transferentziak kooperatibei eta lan sozietateei, enplegua bultzatzearren” kontusailaren kargura urtean zehar egindako jarduketei buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen erantzuna:

1. Laguntza teknikoa eskatzeko aurkezturiko espediente guztiak (6) ebatzi dira.

2. Aplikatzekoa den araudiari jarraituz, %50 lagundu da diruz. Laguntza horren gehieneko muga eskaera bakoitzeko 3 milioikoa izan da.

3. Laguntza teknikoa eskatzeko aurkezturiko espediente guztiak ebatzi dira.

Iruñean, 2000ko abenduaren 11n

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

---

## “EBko funtsekin kofinantziatutako enplegu ekimenetarako ekintzak” aurrekontu-lerroaren kargura 2000n zehar egindako jarduketei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak “EBko funtsekin kofinantziatutako enplegu ekimenetarako ekintzak” aurrekontu-lerroaren kargura 2000n zehar egindako jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko abenduaren 7ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du “EBko funtsekin kofinantzatutako enplegu ekimenetarako ekintzak” kontusailaren kargura urtean zehar egindako jarduketei buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen erantzuna:

1.

A.- 98-99 biurtekoko proiektuei (EMPLEO eta ADAPT) dagokien jarduketa, epez luzatua. Jarduketa horren zenbatekoa 58.300.000 pezetakoa izan da.

B.- 2000ri dagozkion beste proiektu batzuk, era berean Europak kofinantzaturikoak. Horien zenbatekoa 30.750.000 pezetakoa izan da.

2. Eskatutako gastutik zenbateko ehunekoa lagundu da diruz?

2. Nafarroako aurrekontuko gastuak ez du inoiz ere guztizkoaren %50 gainditzen. Beste %50 Europako Gizarte Funtsak finantzatzen du.

3. Geratu al da eskaririk erantzun positiborik jaso gabe?

3. Bat ere ez.

Iruñean, 2000ko abenduaren 11n

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

---

# “Lanbide tailerren programa” aurrekontu-lerroaren kargura 2000n zehar egindako jarduketei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak “Lanbide tailerren programa” aurrekontu-lerroaren kargura 2000n zehar egindako jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko abenduaren 7ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du “Lanbide tailerren programa” kontusailaren kargura 2000n zehar egindako jarduketei buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen erantzuna:

1. Kontusail horren kargura diruz lagundu da 25 urtez beherako 90 gazteren prestakuntza tailer batean, honako hiru espezialitate hauetan: txapa, pintura eta automobilaren elektromekanika.

2. %100 lagundu da diruz.

3. Bat ere ez.

Iruñean, 2000ko abenduaren 11n

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

# “Enplegu tailerren programak” aurrekontu-lerroaren kargura 2000n zehar egindako jarduketei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak “Enplegu tailerren programak” aurrekontu-lerroaren kargura 2000n zehar egindako jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko abenduaren 7ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du “Enplegu tailerren programa” kontusailaren kargura urtean zehar egindako jarduketei buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen erantzuna:

1. Kontusail horren kargura 71 langabeturen (horietako gehienak, emakumezkoak) prestakuntzarako diru laguntza eman da. Hain zuzen ere, honako enplegu tailer hauek antolatu dira:

• Koadernaketa tailer bat, Iruñeko ezindu fisikoen koordinakundeak sustatua.

• Basozaintza-lanetako tailer bat, FOREMek sustatua.

• Pinturarako eta eraikin-instalazioetako tailer bat, Tuterako Udalak sustatua.

• Nekazaritza ekologikoko tailer bat, Tuterako Udalak sustatua.

• Lorezaintzako tailer bat, Iruñeko Udalak sustatua.

2. %100 lagundu da diruz.

3. Bat ere ez.

Iruñean, 2000ko abenduaren 11n

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

# “FIP planeko prestakuntza programak” aurrekontu-lerroaren kargura 2000n zehar egindako jarduketei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak “FIP planeko prestakuntza programak” aurrekontu-lerroaren kargura 2000n zehar egindako jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko abenduaren 7ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du “FIP planeko prestakuntza programak” kontusailaren kargura urtean zehar egindako jarduketei buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen erantzuna:

1. Kontusail horren kargura 486 prestakuntza-ekintza egin dira, eta horietan 6.595 langabetuk parte hartu dute.

2. %100 lagundu da diruz.

3. Bat ere ez.

Iruñean, 2000ko abenduaren 11n

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

# “FIP planeko kontratu-programak” aurrekontu-lerroaren kargura 2000n zehar egindako jarduketei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak “FIP planeko kontratu-programak” aurrekontu-lerroaren kargura 2000n zehar egindako jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko abenduaren 7ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du “FIP planeko kontratu-programak” kontusailaren kargura urtean zehar egindako jarduketei buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen erantzuna:

1. Kontusail horren kargura 102 prestakuntza-ekintza egin dira, eta horietan 1.530 langabetuk parte hartu dute.

2. %100 lagundu da diruz.

3. Bat ere ez.

4. Honako hauek: IFES-UGT, CC.OO., FUNDANEL eta LA FUNDACIÓN LABORAL DE LA CONSTRUCCIÓNek.

Iruñean, 2000ko abenduaren 11n

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

---

# “Lantegi-eskolak eta lanbide-etxeak” aurrekontu-lerroaren kargura 2000n zehar egindako jarduketei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak “Lantegi-eskolak eta lanbide-etxeak” aurrekontu-lerroaren kargura 2000n zehar egindako jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko abenduaren 7ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du “Lantegi-eskolak eta lanbide-etxeak” kontusailaren kargura urtean zehar egindako jarduketei buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen erantzuna:

1. Kontusail horren kargura 25 urtez beherako 533 gazte honako lantegi-eskola hauetan prestatu ahal izateko diru laguntza eman da:

• Burlatako “Parque municipal II” lantegi-eskolan (Burlatako Udalak sustatua).

• “Parque municipal III” lantegi-eskolan (Burlatako Udalak sustatua).

• Eraikuntzaren lantegi-eskola (Iruñeko Udalak sustatua).

• Basozaintza-laneko lantegi-eskola (abelbideak leheneratzea), Iruñeko Udalak sustatua.

• Lorezaintzako lantegi-eskola, Iruñeko Udalak sustatua.

• Igeltserotzako lantegi-eskola, Eloko Udalak sustatua.

• Forja eta soldadurako lantegi-eskola, Tafallako Udalak sustatua.

• Igeltserotza, metal-zurgintza eta lorezaintzako lantegi-eskola, Tuterako Udalak sustatua.

• Zurgintza eta ingurumeneko lantegi-eskola, Aritz Berri granjak sustatua.

2. %100 lagundu da diruz.

3. Bat ere ez.

Iruñean, 2000ko abenduaren 11n

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

---

# Funtzionarioak Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean sartzea dela-eta Parlamentuak hartutako erabakia betetzeari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak funtzionarioak Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean sartzea dela-eta Parlamentuak hartutako erabakia betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko azaroaren 6ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera batzuk (Nafarroako Parlamentuko erregistroko 3241 sarrera-zenbakia) egin zituen 2000ko urriaren 25ean. Hona hemen galderak eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1. Zein urrats eman ditu Nafarroako Gobernuak Parlamentuaren erabaki hori betetzeko?

2. Zenbat bilera eta zeinekin egin ditu Gobernuak Parlamentuak hartutako erabakia betetzen aurrera egiteko? Bi galdera horiek Nafarroako Gobernuak Parlamentuaren erabakia betetzeko egin dituen jarduerei buruzkoak direnez, biak batera erantzunen ditut.

I

Erantzuten hasi aurretik, labur aipatuko ditut Nafarroako Parlamentuak 1999ko azaroaren 24ko Osoko Bilkuran emandako ebazpenaren aurrekoak; nire ustez komenigarria baita, oso labur bada ere, azaltzea izenpetzen duenaren jarrera Nafarroako montepioen auziari arrazoizko irtenbidea bilatzea izan dela.

* 1995ean Nafarroako Gobernuak eta sindikatuek hitzarmen bat sinatu zuten lau urtetarako. Hitzarmeneko erabakietako baten arabera, Administrazioak azterlan bat egin behar zuen montepioen auzia konpontzeko irtenbideak bilatzeko. Hori horrela, jarraibideak eman nituen nire menpeko sailetan lan horri lehentasuna ematearren. Helburua 1997ko udan bete zen eta azterlana berehala eman zitzaien eskatu zuten sindikatuei, montepioei eta talde politikoei. Bertan, aukera diferenteak aztertu ziren: haietako batek proposatzen zuen, ezin baitzen bestela izan, ukitutako langileak, pasiboak zein aktiboak, Gizarte Segurantzaren Araubide orokorrean sartzea.

* Handik aurrera, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren bidez, sindikatuekin elkartzen hasi zen, montepioendako konponbidea bultzatzearren. Horretaz gainera, haren helburua zen Nafarroako Foru Parlamentuak behin eta berriz egindako erreklamazioak, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen oharra eta Kontuen Ganbarak horren gainean emandako gomendioak betetzea.

* Bilera horiek egitean ondorioztatu zen sindikatuei printzipioz ez zitzaiela gaizki iruditzen Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioan galdeketa egitea ukitutako langileak Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean sartzeari buruz. Dena den, sindikatuen ustez, oraingo sistema pasiboetako eskubide igurikapen batzuk mantendu behar

ziren, negoziatu ondoren, eta denak izan ezean baten bat bai bederen. Era berean, talde batzuek planteatu zuten, Gizarte Segurantzaren sisteman sartzerik izanez gero, hautazkoa izatea.

* Horiek horrela, eta garai hartako Lan eta Gizarte Gaietarako ministro Javier Arenas Bocanegra jaunarekin hitz egin eta 1998ko urtarrilaren 16ko haren gutuna jaso ondoren, 1998ko martxoan Gizarte Segurantzaren Estatuko idazkari Juan Carlos Aparicio jaunarekin eta Gizarte Segurantzaren Antolamenduko zuzendari nagusi andrearekin bildu nintzen. Lehendakaritzako idazkari nagusi eta Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiarekin joan nintzen ni.

* Bilera hartan, modu zabalean aztertu zen gure montepioak Gizarte Segurantzan sartzeko aukera, lehenago MUNPALi atxikiriko toki funtzionarioekin egin zen bezala. Halaber, sindikatuek aipatutako oraingo sistemako eskubide igurikapenak mantentzea dela-eta, adierazi zuten mantentzerik izanen genuela, hondar-izaera gisa, baina horretarako beharko genuela montepioen sistemarekin segitu haiek gainkostu hori ordain zezaten. Garai batean MUNPALi eman zitzaizkion baldintzei doakienez, erantzun ziguten ezinezkoa izanen zela baldintza berberak izatea, “Toledoko hitzarmenetan” erabakitakoaren ondorioz.

* Azkenean, ministerioarekin hitzartu genuen haiek eskatzen zizkiguten datuak ematea, jarduera aktuarialen bidez, montepioek horrelako kasuetan ordaindu beharrekoa kalkulatzeko.

* Montepioek datu batzuk eman behar izan zizkioten Gizarte Segurantzari euskarri informatiko jakin batean. Ondoren, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioko zuzendaritza nagusira jo zuen kostuaren batez bestekoa lehenbailehen jakiteko eta, era berean, datu horiek aurkezteko. Kudeaketa hori 1998ko uztailaren hasieran egin zen. Iruñeko Udalaren datuak ez ziren eraman prestatu gabe zeudelako.

* Epe hori iraganik, 1998ko abenduaren 16an, berriro bildu nintzen Gizarte Segurantzaren Estatuko idazkariarekin, Gizarte Segurantzaren Antolamenduko zuzendari nagusiaren eta Gizarte Segurantzaren Ekonomi eta Finantza-plangintza eta Azterketarako zuzendariorde nagusiaren aurrean. Nafarroako Gobernuaren aldetik, ni Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiarekin, Langileen Zerbitzuko zuzendariarekin eta Ekonomi Zerbitzuko zuzendariarekin joan nintzen.

* Bilera horretan, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak sistema horretan sartzeko batez besteko kostuaren gaineko azterlana aurkeztu zuen (Iruñeko Montepiokoa salbu). Bertan, azpimarratu zen sartzeko baldintzek MUNPAL kasuko berberak izan behar zituztela, baina ministerioaren ordezkariek aurreko lehengo jarrera bera agertu zuten, horretarako ezintasuna adieraziz, aurretik alegatutako arrazoiengatik.

* Ondoren, ministerioak emandako informazio ekonomikoak eta datuek sortutako kezkak argitzearren, Ekonomia Zerbitzuko zuzendaria, Langileri Zerbitzuko zuzendaria, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiko Kudeaketa eta Administrazio atalburua eta Antolaketa eta Informazio Sistemen Zuzendaritza Nagusiko Ikuskapen Administratibo eta Informazioaren Segurtasunerako atalburua Madrilera joan ziren 1999ko otsailaren 2an eta honako hauekin bildu ziren: Gizarte Segurantzaren Antolamenduko zuzendari nagusia, Gizarte Segurantzaren Ekonomi eta Finantzaplangintza eta Azterketarako zuzendariorde nagusia eta Ogasun Ministerioko teknikari bat.

* Nafarroako Gobernuko teknikariek kopuruak elkarrekin alderatutakoan, Gobernuari jakinarazi zioten datu horiek, zuzenak izan arren, finantzaahalegin itzela eskatzen zutela. Nafarroako Gobernuak aditzera eman zuen sindikatuei zein Udalen Federazioari egoeraren gaineko informazioa helaraziko ziela, eta, era berean, klase pasiboei buruzko foru lege propio bat sortzeko aukera eskainiko ziela finantza-zama hori arindu beharrez.

* Aurreko guztia, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioarekin, Nafarroako klase pasiboetako montepioak Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean sartzea ikertzeko egindako pauso, kudeaketa, azterlan eta bilera teknikoen azaleko deskribapena baino ez da. Baina azpimarratzekoa da hori dena Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuran emandako 1999ko azaroaren 24ko ebazpena baino lehen egin dela.

## II

Nafarroako Gobernua urte beteko epean Gobernu Zentralarekin erabaki bat hartzera premiatzen duen ebazpena Nafarroako Parlamentuko osoko bilkurak onetsitakoan, zenbait elkarrizketa mantendu zen, telefono bidez, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioko arduradunekin, ebazpen horren edukia helarazteko eta haren betearazpena eskatzeko. Aldez aurretik, sindikatu zein Udal eta Kontzejuen Federazioaren bat etortzea bilatu zen, montepioetako funtzionarioak, Gobernukoak nahiz tokikoak, Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean sartzeko MUNPALi atxi-

kiriko toki funtzionarioak sartu ziren baldintza eta egoera berberetan.

* Ministerioari Parlamentuko Osoko Bilkurak emandako ebazpenaren edukia jakinarazi zitzaion, eta iazko irailaren 27an beste bilera bat egin zen Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioarekin ebazpenaren edukia hausnartzeko. Gizarte Segurantzaren Estatuko idazkari berria, Gizarte Segurantzaren Antolamenduko zuzendari nagusia eta Estatuko idazkariaren kabineteburua bertaratu ziren. Izenpetzen duen hau Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiarekin joan zen.

* Bilera horretan, Ministerioari berriro eskatu zitzaion gure montepioetako langileen integrazioa MUNPALi atxikiriko toki funtzionarioena egin zen baldintza berberetan egiteko. Baina ministerioko ordezkariek berriro argudiatu zuten, “Toledoko hitzarmenaren” ondorioz, Gizarte Segurantzan sartzeko irizpideek kontuan hartu behar dutela Gizarte Segurantzari ordaindu behar zaizkiola horien kostuak, 1998an kalkulatutakoaren arabera eta atxikitze-egunerako gaurkotu ondoren.

III

3. Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean sartzea gomendatzen ez duen azterlan ekonomikorik egin al da? Zenbat egiten du Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean sartzeko kostuak? Gizarte Segurantzan sartzea gomendatzen ez duten Gizarte Segurantzaren Diruzaintzaren eta Nafarroako Gobernuaren txostenen kopia bat nahi dugu.

Galdera honi doakionez, toki ogasunean eragina duen beste edozein arau proiektutan bezala, Nafarroako Gobernuak, erabakirik hartu aurretik, ondorio ekonomikoez gainera, aztertu du ere Nafarroako administrazio publikoetako montepioei atxikiriko funtzionarioen eskubide pasiboen araubidearen aldaketak sortarazten ahal duen guztia.

Arestian esan bezala, 1998ko abenduan, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak azterlan bat bidali zuen udaletako eta Nafarroako Foru Diputazioko montepioei atxikiriko langileak Gizarte Segurantzan sartzeko kostuari buruz. Azterlan horretan ez zen Iruñeko Udala sartu, haren gaineko daturik ez baitzegoen.

Azterlan horretan, idazki honi 1. eranskin gisa atxikirik, integrazioaren kostua finkatu zen, bai eta horretarako erabilitako lan-ildoak eta oinarri teknikoak ere, aktibo eta pasiboak bereiziz. Era berean, kostu hori 15 urtetan amortizatzeko bidea ere azaldu zen.

Halaber, integrazio horretako ekonomiaz gaindiko baldintzak ere azaldu ziren, nahiz eta azterlan ekonomiko horretan ageri ez, ahoz jakinarazi baitzizkiguten Gizarte Segurantzako arduradunekin aurretik izandako bileretan. Hona hemen baldintza horiek:

– Ezin zen aukeratu, hots, aktibo guztiek sartu behar zuten Gizarte Segurantzaren sisteman.

– Gaur egun pentsiodunak direnak ere pasako ziren Gizarte Segurantzaren sistemara. Horrek ondorio hauek sortuko zituen:

• Aitorturiko pentsioen murrizketa automatikoa, Gizarte Segurantzak ezarritako zenbatekoraino, Nafarroako Parlamentuak ez baitu aintzat hartu muga hori foru araudian.

• Beharbada pentsioak berriro kalkulatuko dira, 65 urte izan gabe 35 urtez lanean eman ondoren, borondatezko jubilazioa, foru araudiari jarraikiz, hartu dutenen kasuan. Integrazioaren ondorioz, pentsio horiek murriztuko lirateke, gizarte Segurantzako araudiaren araberako koefiziente murriztaileen aplikazioagatik.

• Ez dakigu Gizarte Segurantzak onartuko zituen Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean aintzat hartzen ez diren kasuetako Nafarroako Administrazio Publikoetako montepioen pentsiodunak. Adibidez, besteak beste, aitorturiko umezurtz pentsioa jasotzen zuten funtzionarioen alaben egoera zalantzan jartzen zen. Izan ere, otsailaren 26ko 5/1991 Foru Legea baino lehenagoko araudiak ezartzen zuen funtzionarioen alaben eskubidea pentsioa jasotzeko, adina edozein izanda ere, ezkondu edo erlijio-botoak egin arte; eta semeek, berriz, jasotzeari uzten zioten 25 urte betetzean.

GIZARTE SEGURANTZAK INTEGRAZIORAKO ESKATURIKO ZENBATEKO ETA BALDINTZA EKONOMIKOEN GAINEKO IRIZPENAK

A) Integrazioaren kostua guztira, Gizarte Segurantzak 1998ko abenduan egindako azterlanaren arabera.

* Aktiboen kostua

| | |
|---|---|
| Nafarroako Foru Diputazioa | 40.395 milioi pezeta |
| Tuterako Udala | 874 milioi pezeta |
| Tafallako Udala | 308 milioi pezeta |
| Gainerako udalak | 4.925 milioi pezeta |
| Aktiboen kostua, guztira | 46.502 milioi pezeta |

* Pasiboen kostua

| | |
|---|---|
| Nafarroako Foru Diputazioa | 47.054 milioi pezeta |
| Tuterako Udala | 2.200 milioi pezeta |

| | |
|---|---|
| Tafallako Udala | 853 milioi pezeta |
| Gainerako udalak | 24.103 milioi pezeta |
| Pasiboen kostua, guztira | 74.210 milioi pezeta |

B) Ordaintzeko modua

Aktiboen nahiz pasiboen kostua 15 kuotatan, 15 urtetan, pagatzen ahal da, urteko interesa % 4 izanik. Urtero 10.858 pezeta ordaindu behar da, montepioen arabera honela banaturik:

| | |
|---|---|
| Nafarroako Foru Diputazioa | 7.865 milioi pezeta |
| Tuterako Udala | 277 milioi pezeta |
| Tafallako Udala | 105 milioi pezeta |
| Gainerako udalak | 2.611 milioi pezeta |
| Guztira | 10.858 milioi pezeta |

Aurrekoaren arabera, Nafarroako aurrekontu orokorretako ekitaldi bakoitzean, lehenbiziko hamabost urtetan, 10.858 milioi pezetako gastua aurreikusi beharko litzateke. Bestetik, aurrekontu horietatik kendu beharko litzateke egun montepioetako pentsioengatik ordaintzen dena (Nafarroako Gobernuko montepiorako 2000. urtean 4.625 milioi pezeta ezarri dira) eta gastuen atalean honako hauek sartu:

C) Gehitu beharreko beste hainbat kostu:

– Gizarte Segurantzan sartzeak kaltetu dituen egungo pentsiodunen eskubideen zenbatekoa:

• Foru araudiak ezarritako pentsioen eta Gizarte Segurantzaren gehieneko zenbatekoen arteko aldea.

• Gizarte Segurantzak hartzen ez dituen umezurtz-kasuak.

• 65 urte baino gutxiago izan eta borondatezko jubilazioa hartzen dutenen kasuetan, foru araudiaren babesean emandako pentsioei Gizarte Segurantzak aplikatutako murriztapenen zenbatekoa kentzea.

– Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean sartuko diren langile aktiboen kuota patronalaren zenbatekoa (Nafarroako Gobernuko 3.534 funtzionarioendako soilik, urtean, 3.500 milioi pezetakoa da gutxi goitibeiti).

NAFARROAKO GOBERNUAREN BESTE HIPOTESI BATZUEN GAINEKO IRIZPENA

Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren azterlana ikusirik, Nafarroako Gobernuak ikertu zuen kontuan hartzeko aukera hauen kostu ekonomikoa:

• Gaur egungo montepioa aldatu gabe mantentzea, hau da, prestazioetako oinarriak eta portzentajeak mantentzea, bai eta bi taldeen arteko ezberdintasunak ere, montepioan 1973ko uztaila baino lehenago sartuen eta egun horren ondotik sartutako funtzionarioen artekoak, alegiak.

• Montepioko oinarriak eta portzentajeak aldatzea, baina irizpide bateratzaile eta Gizarte Segurantzaren araubide orokorraren antzekoari jarraikiz.

Horiek horrela, eta montepio honetako pentsioeskubidea sortzeko gaur egungo araudian ezarritako baldintzak edo betebeharrak aldatu gabe, esaterako, 70 urtekoen nahitaezko jubilazioa, lehen ikerlan bat bukatu zen 1999ko maiatzean, laburbilduz, egungo egoera eta arazoak azaltzen zituena eta, azaletik bazen ere, ematen ahal ziren konponbideen berri ematen zuena. Ikerlan horren kopia erantsi da idazki honen 2. eranskin gisa.

Ikerlan hori egin ondoren eta matematika aktuarialeko formula berberak erabiliz, bestelako aukera batzuk pentsatu eta aztertu ziren, hala nola, nahitaezko jubilaziorako adin diferenteak ezartzea, eta borondatezkoa zerbitzuko 35 urterekin, langilearen kotizazio altuagoak finkatzea sistema honetakoak baino... Ondorioz, hori dena ikerlan ekonomiko batean bildu zen, eta txosten ekonomiko gisa erantsi zitzaion Parlamentura bidalitako foru lege proiektuari.

Hala ere, Nafarroako Gobernuak erabaki zuen Gizarte Segurantzan ez sartzea eta talde pasiboen araubidea aldatzea Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorreko irizpideei jarraikiz, Gizarte Segurantzak egindako ikerlanagatik. Hona hemen arrazoiak:

• Funtzionarioek ezin zuten sistemen artean hautatu, ordezkari sindikalek aukera hori eskatu arren.

• Nolabaiteko montepio bat mantentzeko beharra, Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean sartzerik ez duten eta haien pentsioa berkalkulatua izanen zuten oraingo pentsiodunen kasu guztiak hartu ahal izateko.

• Gizarte Segurantzak eskatutako finantziaziosistemaren eta kostu ekonomikoen eragin handia Nafarroako aurrekontu orokorretan, sartu eta hamabost urtetan. Horrek, Nafarroako Gobernuaren iritziz, konponbidea bideraezin bilakatzen du.

IV

4. Zer dela eta sinatu du Nafarroako Gobernuak akordio bat administrazio publikoko sindikatuekin eskubide pasiboei buruzko foru lege bat prestatzeari buruz, funtzionarioak Gizarte Segu-

rantzan sartzeko Parlamentuak emaniko agindua bete gabe zegoenean?

Galdera honi doakionez, honako hau adierazi nahi dut:

Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua onetsi zuen martxoaren 30eko 13/1983 Foru Legearen lehen xedapen gehigarrian, Nafarroako Foru Diputazioak 1985eko urtarrilaren 1a baino lehenago onetsi beharreko erregelamenduen artean seigarrena aipatzen zen, eskubide pasiboei buruzkoa.

Ondoren, Estatutuaren testu bategina onetsi zuen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren lehen xedapen iragankorrean ageri bezala, zehaztu zen eskubide pasiboen araubidea foru lege baten bidez arautuko zela, eta dekretu horren laugarren xedapen gehigarrian hauxe xedatu zen:

“Nafarroako Gobernuak Parlamentuari igorriko dio, Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubidea erregulatzeko Foru Legearen proiektua, aurretik Iruñeko, Tuterako eta Tafallako udalei eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari entzutea eman eta funtzionarioen ordezkaritza sindikalarekin negoziatu ondoren.”

Bestetik, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen bederatzigarren xedapen gehigarrian Nafarroako Gobernua premiatzen zen Nafarroako udal montepioen sistema Gizarte Segurantzaren sisteman sartzeko behar ziren jarduketa eta kudeaketak egin zitzan.

Halaber, administrazioak eta sindikatuek 1995eko abenduaren 1ean sinaturiko akordioan, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko 1996-1999 eperako langileen lan-baldintzei eta administrazioaren modernizazioari buruzko hartan, konpromisoa hartu zuten Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean edo Estatuko talde pasiboenetan sarturik ez zeuden funtzionarioen eskubide pasiboak, ahal izanez gero, teknikoki zein ekonomikoki gaurkotzeko.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legean xedatutakoaren ondorioz, elkarrizketak hasi ziren Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioarekin udal montepioen eta Nafarroako Foru Diputazioko montepioaren integrazioari buruzko azterlana mahaigaineratzeko. Elkarrizketa horiek gauzatu ziren Gizarte Segurantzak 1998ko abenduan emandako ikerlanean, erantzun honetako 3. atalean aipatu dudan integrazioaren kostu ekonomikoari buruzkoan.

Nafarroako Administrazio Publikoen montepioetako funtzionarioak Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean sartu ahal izateko, Neurri fiskal, administratibo eta sozialei buruzko abenduaren 30eko 50/1998 Legeak baimena eman zion Gobernuari, sei hilabeteko epean, eta arauek ezarri moduan, deuseztutako Mutualidad Nacional de Personal de la Administración Localetik baztertutako Foru Komunitateko Administrazioaren eta Nafarroako toki entitateen langileak Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean sartzeko.

1999ko urriaren 25ean, Nafarroako Gobernuak berriro ekin zion administrazio publikoen zerbitzuko langileen lan-baldintzei buruz negoziatzera. Sindikatuen plataformaren batean agertu zen Nafarroako Gobernuaren konpromisoa Nafarroako Parlamentuan 2000ko lehen seihilekoan foru lege proiektu bat aurkezteko. Foru Lege proiektu horren bidez arautu nahi zen eskubide pasiboen araubidea, ez bakarrik toki entitateen 4 montepioetako funtzionarioenak, baita gainerako langileenak ere, horrela legeak ezarritakoa eta Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bateginaren laugarren xedapen gehigarrian erabakitakoa betetzeko.

Negoziazio horiek hasi ondoren, 1999ko azaroaren 24an, Nafarroako Parlamentuak eztabaidatu eta onetsi zuen ebazpen bat “Nafarroako Gobernua premiatzeko, aldez aurretik Nafarroako toki administrazioetako ordezkariekin –Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren bitartez– eta funtzionarioen ordezkariekin adosturik –sindikatuen bidez–, Gobernu Zentralarekin hitzarmen bat egin dezan, urtebeteko epean eta Zerga, Administrazio eta gizarte arloko neurriei buruzko abenduaren 30eko 50/1998 Legeko bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa betez. Hitzarmen hori dela medio, Nafarroako Foru Administrazioko eta Toki Administrazioetako funtzionarioak Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean sartuko dira. MUNPALi atxikitako toki administrazioko funtzionarioen sarreran izan ziren baldintza eta bide berak edo hobeak izan beharko dira oraingo sartze honetan ere.”

1 eta 2. galderetako erantzunetan adierazi moduan, Nafarroako Gobernuan integraziorako kudeaketak egiten hasi zenetik, hau da, 1998. urtetik, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak, hori ikusita, berriro adierazi zuen, “Toledoko hitzarmenaren” ondorioz, sartze horrek kontuan hartu behar zuela Nafarroako montepioen beharra, sortutako gastuak Gizarte Segurantzaren sistemari pagatzeko.

Hala eta guztiz ere, Nafarroako Parlamentuak ebazpen hori onetsitakoan eta bertan eskatutakoa

ikusirik, ministerioari errepikatu zaio, ebazpena berriro bidali baitzaio, hasieran azaldutako nahia, baina horrek ez du lortu iritzia aldaraztea, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak, hasiera hasieratik defendatu zuena berretsi duelako Gizarte Segurantzako idazkariak iazko urriaren 11ko idazkiaren bitartez.

Nafarroako Gobernuak ordurako bazekienez MUNPAL sartu zeneko baldintzak eta egoera ezin zirela orain errepikatu Nafarroako administrazio publikoen montepioak sartzeko prozesuan, uste izan zen Nafarroako Parlamentuak 1999ko azaroaren 24ko ebazpenaren bidez emandako baldintzetako batek huts egiten zuela, erabaki bat burutu behar baitzen gobernu zentralarekin. Horregatik, sindikatuekin negoziatzeko prozesuak aurrera egin zuen, Nafarroako Administrazio Publikoen montepioetako klase pasiboak arautzeko foru lege aurreproiektu baten zirriborroa eginez.

Udalen Federazioari aurreproiektu horren berri eman zitzaion, eta bilera batzuk egin ondoren, Federazioak onespena eman zion. Gero, Nafarroako Gobernuak foru lege proiektua onetsi zuen eta Nafarroako Parlamentura bidali, eztabaidatu, eta, kasua izanez gero, onesteko.

Azaldu berri dudan adierazpen sakon honetan, Nafarroako Gobernuak, kontuan hartu du, une oro, Nafarroako Parlamentuaren ebazpena, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baitzen gobernu zentralarekin batera erabaki bat hartzera, baldintza batzuei jarraikiz, Parlamentuak ebazpen hori onetsi aurretik, sindikatuekin negoziatzen hasitakoan, kudeaketak egin baitziren Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioarekin, Administrazio Publikoen montepioak Gizarte Segurantzan sartzeko erabakirik hartu gabe, Nafarroako Parlamentuak erabaki horretarako finkatu zuen baldintza hau bete ez delako: “Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean sartzea egin beharko da MUNPALi atxikiriko toki funtzionarioak sartu ziren baldintza eta egoera berberetan.”

Hori guztia jakinarazi dizut, Biltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoa betetzeko.

Iruñean, 2000ko azaroaren 17an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

HARPIDETZAREN PREZIOA

ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA

| | | |
|---|---|---|
| Urte bat | 6.300 | pta. |
| Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa | 150 | » . |
| Bilkura Egunkariaren aleko prezioa | 185 | » . |

IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

**NAFARROAKO PARLAMENTUA**

«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»

Arrieta 12, 3

31002 IRUÑA

Inprimatzailea: ONA Industria Gráfica (Iruña).

Lege Gordailua: NA – 363-1995

Paper ekologiko birziklatua